

Kultura Communication Desarrollo KCD ONGD

# 2023ko MEMORIA MEMORIA 2023





[www.kcd-ongd.org](http://www.kcd-ongd.org)

## **Kultura Communication Desarrollo KCD GGKE / ONGD**

Beurko Viejo 3 Pabellón 38 - Of. 12  
CP 48902 - Barakaldo - Bizkaia

### **Kontaktua / Contacto**

Telefona / Teléfono: 94 602 46 68  
E-mail: [info@kcd-ongd.org](mailto:info@kcd-ongd.org)  
<https://www.kcd-ongd.org/>

### **2023ko lantaldea / Equipo de trabajo en 2023**

#### **Zuzendaritza Batzordea / Junta directiva:**

Rosa María Pastor Rincón (Presidente / Presidenta),  
Marta Renovales Pérez (Presidenteordea / Vicepresidenta),  
Pablo Ruiz Sal (Diruzaina / Tesorero),  
Juan Ramón Marcos Ramos (Idazkaria / Secretario).

#### **Zuzendaritza / Dirección:** Juan Carlos Vázquez Velasco

**Proiektuak / Proyectos:** Joseba Villa González, Ainhoa Pérez-Arróspide Navallas, Anabell Carrasco Cedeño, Javier Echazabal, Yolanda Barco Ramos, Cristina Alba Pereda

#### **Administrazioa / Administración:** Leire Pascual Basauri

**Produkzioa / Producción:** Gorka López Arantzamendi

### **2023ko praktika-taldea / Equipo de prácticas 2023**

Miriam Guadilla Martínez, Ekaitz Vargas Guinea, Kevin Lajas López, Aroa Uriarte Rubio

**IFK / CIF:** G95550943

**Edizioa / Edita:** KCD ONGD

**Diseinua / Diseño:** Binari Comunicación

**Azaleko Irudia / Imagen de portada:** Normandía nekazaritza-kooperatibako dantza-taldearen emanaldia, El Salvador / Actuación de grupo de baile de la Cooperativa Agrícola Normandía, El Salvador.

# AURKIBIDEA ÍNDICE



<b>NOR GARA?</b>	<b>4</b>
¿QUIÉNES SOMOS?	42

<b>EUSKADIN GIZARTEA ERA DATZEKO HEZKUNTZA-EKINTZAK</b>	<b>9</b>
ACCIONES DE EDUCACIÓN PARA LA TRANSFORMACIÓN SOCIAL EN EUSKADI	47

<b>KANPOKO GARAPENERAKO LANKIDETZA-EKINTZAK</b>	<b>25</b>
ACCIONES DE COOPERACIÓN AL DESARROLLO EN EL EXTERIOR	63

<b>ANEXOA:</b>	<b>80</b>
<b>2023ko KONTU-BALANTZE LABURTUA</b>	
ANEXO: BALANCE DE CUENTAS ABREVIADO 2023	80

# 1 | NOR GARA?

Kultura Communication Desarrollo KCD GGKE garapenerako gobernuz kanpoko erakunde bat da. Eusko Jaurlaritzak onura publikoko elkarte izendatu zuen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorean inskribatuta dago, AS/B/14091/2008 zenbakiarekin.

KCD GGKE elkartea independente eta laiko bat da, **giza garapen bidezko eta jasangarria lortze-ko** asmoarekin sortua. Helburu horretara iristeko, komunikazioa baliatzen du hainbat lan-arlo elkarri lotzeko tresna gisa, hala nola **gizarte-eraldaketarako hezkuntza, eragin politikoa eta nazioarteko lankidetza**. KCD GGKEk **herritar kritikoak sortu** nahi ditu bere estrategiaren bidez; **berdintasunaren alde egiten duten herritarrak, aniztasuna errespetatzen dutenak eta sozialki konprometituak**.

KCD GGKEk jakin badaki sinergiak eta aliantzak behar direla ibilbide hori egiteko. Horregatik, **Euskadiko Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakundeen (GGKE-en) Koordinakundeko** kidea 2014az gerotzik. 2015ean, Garapen Jasangarriaren **2030 Agendaren** eta Nazio Batuek proposatutako 17 helburuen aldeko konpromisoa hartu zuen, eta, 2017tik aurrera, **(H)abian 2030** Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategiaren partaide da. Era berean, **Hegoalde Globaleko kontrako alderdiekin lankidetzan aritzearen aldeko apustua** egin du, gizartea eraldatzea eta bidegabekeren aurka egitea baita haren nahia.

## MISIOA

KCD GGKEren MISIOA komunikazioaren eta kulturaren bidez giza garapen jasangarria, kulturarteko eta bidezkoa sustatzea da.

## IKUSPEGIA

GGKE bat den aldetik, nazioarteko erreferentzia izan nahi du kultura eta komunikazioa eraldaketa-estrategia gisa erabiltzeko zereginean, kulturarteko giza garapen zuzena eta jasangarria lortze aldera.

## KCD GGKE-REN PRINTZIPIOAK

1. Herritar globalak eta gizartearekin konprometituak.
2. Komunikazio demokratikoa, askotarikoa eta plurala.
3. Tradizionalki baztertuta egon diren kolektiboen eta komunitateen integrazioa.
4. Genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea.
5. Aniztasun kulturala, etnikoa, erlijiosoa, politikoa, funtzionala, soziala, sexuala eta genero-identitateari lotutakoa errespetatzea.
6. Giza eskubide indibidualak eta kolektiboak.
7. Naturareniko harreman jasangarria.
8. Bake positiboaren kultura.
9. Pertsonen eta herrien arteko berdintasun-harremanak.
10. Migrazio-prozesuen humanizazioa.


## KCD GGKE-K EKITATEAREN ALDEKO APUSTUA EGIN DU

KCD GGKE konprometiturik dago, orobat, genero-ekitatearekin, eta, ildo horretan, milioika emakumek eta sistema patriarkalaren heteronormatibitatearekin bat ez datozen pertsonek jasaten

duten **diskriminazioa eta indarkeria amaitzea** du xede. Horretarako, **emakumeen partaidetza sustatu** nahi du politikagintzan, gizartean, kulturan eta esparru ekonomikoan, baita emakumeen ahaldunten indartu ere. Berdintasunaren aldeko lan horretarako, gainera, beharrezkoa da guztien **inplikazioa, gizon zein emakume**, hala lortuko baita heteroarauari hortzak erakustea, baita bestelako sexu-orientazio eta -identitateen diskriminazioari ere.

KCD GGKEk apustu instituzional argia egin du sortu zenetik, **genero-ekitatea modu transbertsalean sustatzeko**, hala erakundearen jarduera guztieta nola dinamika propietan. Eta halaxe jasotzen du, gainera, bere plan estrategikoan, eta ikuspegi feministak txertatzen du lankidezko eta gizarte-eraldaketarako hezkuntza-ekintzetan, euskal erakunde publiko eta pribatu espezializatuek proposatutako politikekin, dokumentuekin eta kodeekin bat etorri. Horregatik, **eguneroko ekintzen aldeko apustua** egiten du, **errerealitateak eraldatzeko** gizarte-bizitzako esparru guztieta.

## EGITURA



Erakundearen egiturari buruzko informazio gehiago: <https://www.kcd-ongd.org/conocenos?lang=eu>

## BOLUNTARIOAK

KCD GGKEk hainbat pertsona eta profesionalen babes jasotzen du, eta, haiei esker, honako ekimen hauek gauzatu ahal izan ditu: Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia, «Zinemagileen artean» emakumeek egindako zinema-karabana eta erakundeak



2023ko Bilboko 15. FICI boluntario taldearen kide batzuk

2023an burututako beste zenbait jarduera eta ekitaldi.

- Guztira 15 pertsona (11 emakume eta 4 gizon) aritu dira **kanpo-batzorde** gisa, zinema-jaialdiaren azken hautaketa egin aurretik filmak ikusteko.
- Beste 21 lagunek (16 emakumek eta 5 gizonek) jardun dute **zinema-jaialdiko epaimahaikide** gisa, Zinema Ikusezinaren 15. edizioko lanak saritzeko.
- Horrez gain, 22 lagun (14 emakume eta 8 gizon) aritu dira **laguntzaile** gisa zinema-aretoetan, zinema-jaialdian eta karabanan.
- Tartanga LHIIko «Ikus-entzunezko projektuen eta ikuskizunen errerealizazioa» goi-mailako zikloko 31 ikaslek (12 emakumek eta 19 gizonek) jardun dute zinema-jaialdiko **errejidore-lanetan**.
- Erakundearekin lankidetza-hitzarmena sinatu duten 15 ikastetxeetako 568 irakasle, berriz, tailerretan, zinema-jaialdian eta beste jarduera batzuetan aritu dira.

KCD GGKEko boluntarioen taldeko kide izan nahi baduzu edo beste edozein modutan lagundu nahi baduzu, idatzi helbide honetara: info@kcd-ongd.org.

### **LANKIDETZA-AKORDIOAK HEZKUNTAZA-ERAKUNDEEKIN**

1. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)
2. UPV/EHUko Bizkaia Esperimentzia Gelak
3. UPV/EHUko Garapenerako Lankidetza Bulegoa
4. Deustuko Unibertsitatea
5. IES Ibarrekolanda BHI, Bilbao
6. CIFP Txurdinaga LHII, Bilbao
7. CIFP Elorrieta Erreka Mari LHII, Bilbao
8. CIFP Nicolás Larburu LHII, Barakaldo
9. CIFP Tartanga LHII, Erandio
10. IES Aixerrota BHI, Getxo
11. CIFP Iurreta LHII, Iurreta
12. IES Artaza-Romo BHI, Leioa-Getxo
13. IES Mungia BHI, Mungia
14. IES Ballonti BHI, Portugalete
15. IES Saturnino de la Peña BHI, Sestao
16. IMFPB Bituritxa OLHUI, Barakaldo
17. IES Bengoetxe, Galdakao
18. IES Gernika BHI
19. IES Uribe Kosta BHI, Plentzia
20. IES Eskurtze BHI, Bilbao
21. La Mennais Berri Otxoa Ikastetxea

### **TOKIKO ETA NAZIOARTEKO BESTE ERAKUNDE BATZUEKIKO LANKIDETZA**

1. Ongi Etorri Errefuxiatuak, errefuxiatuak babesteko plataforma
2. Mujeres con Voz
3. Hartu-Emanak

4. Unesco Etxea, «Dame un minuto de...» izeneko film laburren lehiaketa
5. Ekologistak Martxan Ekobaraka
6. Zinegoak, Bilboko gay-lesbo-trans Nazioarteko Zinema Jaialdia
7. HalaDzipo Musika Eskola de Barakaldo
8. Emakumeek zuzendutako zinema-erakusketa - Zinemakumeak Gara

### **HEGOALDE GLOBALEKO ERAKUNDEEKIKO LANKIDETZAK**

1. Latinoamerikako Zinema Berriaren Nazioarteko Jaialdia, Habana, Kuba
2. Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Jaialdia, Saint Louis, Senegal
3. Oaxaca Mexikoko “El lugar que habitamos” Irrati eta Zinema Komunitarioko Jaialdia
4. CLACPI. Herri Indigenen Zinemaren eta Komunikazioaren Latinoamerikako Koordinatzailea
5. “Ojo al Sancocho” Zinema eta bideo alternatibo eta komunitarioaren nazioarteko jaialdia, Ciudad Bolívar, Bogotá-Kolonbia
6. REVERDES, El Salvadorreko mugimendu politikoa, krisi ekologiko, sanitario, ekonomiko eta sozial gero eta handiagoen inguruan lan egiten duena

### **KCD GGKE-REN KONTRAKO ALDERDIAK HEGOALDE GLOBALEAN**

#### **Habana Hiriko Historialariaren Bulegoa (1938)**

Habanako hirigune historikoa birgaitzearen ardura du 1981. urtetik. Zeregin horretan, garapen integral eta jasangarriko eredu ezarri du, kultura, ondarearen birgaikuntza, arkitektura-zahar-berritzea eta berroneratze sozioekonomikoa ardatz hartuta, bizigunea baldintza duinetan kontserbatzeko xedearekin, ekonomikoki errentagarria eta ingurumenaren aldetik jasangarria izan dadin.

#### **CAJAR – Colectivo de Abogados y Abogadas «José Alvear Restrepo» - Ccajar, Kolonbia (1978)**

Giza Eskubideak ikuspegi integral batetik defenditu eta sustatzen ditu, eskubideok banaezinak eta interdependenteak direla oinarri hartuta. Ildo horretan, inpunitatea gainditzen eta Zuzenbidezko Estatu Sozial demokratikoa eta partaidetzakoa finkatzen lagundi nahi du —bidezkoa eta ekitatiboa den gizartean, gizarteratze politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalaren ikuspegitik—, baita bake egonkor eta iraunkorra lortzen ere.

#### **Equipo Maíz elkartea, San Salvador, El Salvador (1983)**

Prestakuntza-erakundea edo ikastetxea da, eta bere ildoko erakunde sozial, herrikoi eta sindikaleko militanteen eta ekintzaileen prestakuntza integrala sustatzea du helburu. Herri-hezkuntza du oinarrizko estrategia, errerealitatea ulertzeko eta analisi kritikorako tresna.

#### **Ojo de Agua Comunicación Indígena, Oaxaca, Mexiko (1998)**

Komunikazio indigena eta komunitarioa sustatzen dute, irratia- eta bideo-saio kulturalak eta hezigarriak ekoitzten dituzte, eta, gainera, beste talde eta erakunde batzuekin lankidetzan dihardtute komunikazio indigena eta komunitarioko prozesu eta komunikabideetan, Mexikoko hegoaldean eta gure herrialdeko eta Latinoamerikako beste eskualde batzuetan.

#### **ACUA Asociación Comunitaria Unida por el Agua y la Agricultura, El Salvador (2005)**

Erakunde solidarioa, gardena eta inklusiboa da. Gizarte-justiziarekin, genero-berdintasunarekin eta ekitatearekin konprometituta dago, eta biztanleria zaurgarri eta pobretuaren ahalmenak indartzen ditu, haien eskubideak eta lurraldaren kudeaketa alternatiboa exijitzeko, bereziki uraren iraunkortasunari eta elikadura-burujabetzari dagokienez.

### **Klaketa Arabe, Egipto (2007)**

Egoitza Kairon duen ekoiztetxea da, eta prestakuntzan eta emakumeek egindako zinemaren sustapenean dihardu.

### **Hahatay, son risas de Gondiol, Senegal (2012)**

Wolof hizkuntzan *Man na neek* (posible da) esaten dioten kontzeptua oinarritzat duen erakunde da. Hori dela eta, elkartearren misioa (leginez ikastea) etengabeko ekintza da, ziurtatu ahal izateko pertsona guztiak duntasunez biziko direla eta beren bizitzaren protagonista eta beren garapenaren eta askatasunaren eragile izango direla.

## **TESTUINGURUA**

Gizateria kili-kolo dago berriro, alderdi askotan: gizartean, ingurumenean, esparru militarrean eta baita etikan ere. Gizarte-lorpenak galtzeko arriskua benetako da, bultzada liberal eta kon-tserbadore berri baten aurrean baikaude. Genero-indarkeriak goraka egiten jarraitzen du, kris-talezko sabaiak apurtzeke daude oraindik, klima-aldaketa bizkortzen ari da eta kalte larriak era-giten ditu planetako bizitzaren alderdi askotan. Munduko leku askotan, gerrek eta indarkeriak sufrimendua, heriotza eta hondamendia sortzen jarraitzen dute.

Hasieratik, herrialde aberastuek menperatu dute globalizazioa, aurretik kolonialismoarekin egin zuten moduan, eta Ipar Amerika, Europa eta Ekialdeko, Asiako eta Ozeaniako herrialde batzuk izan dira onuradun nagusiak. Multinazional erraldoien eta patenteen gaineko politiken bidez, botere handia lortu dute beste herrialde batzuetan, batez ere Hegoalde Globalekoetan. Baino Mendebaldearen hegemonia hori ahultzen ari da azken urteetan; izan ere, garatzeko bidean dauden ekonomiak azaldu dira, eta horietako batzuk munduko ekonomiaren funtsezko oinarri bihurtzeko bidean dira. Hortik dator Txinaren eta Estatu Batuen arteko norgehiagoka estrate-gikoa (komertziala eta teknologikoa), gero eta handiagoa dena, baita horren eskualde-mailako adarrak ere, gerrak elikatzen dituztenak, Errusiaren eta Ukrainaren artekoa eta Ekialde Hurbilekoak, esaterako. Ziurgabetasun-egoera horretan beste gatazka batzuk ere sor litezke, Hegoalde Globalean zein Iparraldean, eta baita oso estrategikoa den Asia-Ozeano Bareko zonaldean ere. Goraka doan jardun militarra baliatu du Israelek Palestinako herriaren kontra aurrekaririk ez duen esku-hartze militarra modu basatian areagotzeko.

Gaur egun, gobernu asko gastu militarren aldeko apustu gero eta handiagoa egiten ari dira. Ildo horretan, azpimarragarria da zenbait komunikabideren jokabidea. Badirudi diskurtso belikoaren bidez iritzi publikoan eragin nahi dutela, gastu militarren gorakada izugarria logikotzat jo dadin. Latinezko esamolde zaharra gaur egunera ekartzen ari dira: *Si vis pacem, para bellum* (bakea nahi baduzu, presta zaitez gerrarako). Nabarmentzekoa da, krisiak krisi, Europar Batasuneko estatuek 58.000 milioi euro gastatu zituztela 2023an material militarrean. Munduan, gastu mi-litarra % 9 handitu zen 2023an, aurreko urtearekin alderatuta, eta 2,2 bilioi dolarrekoia izatera iritsi zen. Zenbateko horrek errekor guztiak hautsi zituen eta goraka egiten jarraitzen du. Se-guruenik, gastu militarren hazkundearekin gerrako danbor-hotsak ugarituko dira, eta, horrekin batera, depresioa eta antsietatea areagotu egingo dira gizartean, onenean jarrita. Era berean, ziur asko, murrizketak izango dira kutsu soziala duten gastuetan, lankidetzan, osasunean, hezkuntzan, zientzian eta abarretan. Eragina izango du klase ertainaren poltsikoetan eta Mendebal-deko herritarren behe-klaseetan ere, baina Hegoalde Globalean milioika lagun kaltetuko ditu, segur aski. Ezpata-zarata horrekin, litekeena da krisialdi berriak etortzea, bai eta horiei aurre egiteko politikak ere, pertsonei desberdin eragingo dietenak, bakoitzaren generoaren edo koka-pen geografikoaren arabera.

Bestalde, adimen artifizialaren (AAren) gaia puri-purian dago. Aurrerapen handiak ekar ditzake osasungintzan, hezkuntzan, zientzian eta beste eremu askotan, edo menperatze-modu berri

bat izatera irits daiteke. AAren kontzeptua 50eko hamarkadan sortu zen, Estatu Batuetako armadaren ekimenez; gaur egun, erraldoi teknologikoen bultzada irmoa du. Gaur-gaurkoz, AA eginkizun zehatzetara bideratzen da, baina gero eta gehiago hurbiltzen gaitu adimen artifizial orokorrera (AAOra), zereginak gizakion antzera egiteko gai den teknologiara. Aldez aurreko bal-dintza da hori «singularitate teknologikoa» lortzeko, hau da, adimen artifizialak gizakien esku dagoen kontrola gaindituko duen unera iristeko. Egungo abiaduran, arriskuak handiagoak izango dira sarek sozialek ekarri zitzatenak baino, eta orain arte ezagutzen duguna gaindituko dute. Ez dugu ahaztu behar teknologia horren atzean interes militar eta ekonomiko handiak daudela, eta mundu androzentriko, patriarkal eta matxistaren eragina duten datuak eta algoritmo asko erabiltzen direla ereduak entrenatzeko eta AA elikatzeko.

Baina azpimarratzeko da, halaber, gaur egun munduak giza kapital itzela duela, eta metatutako aberastasuna inoizko handiena dela. Ehunka irtenbide zientifiko eta teknologiko daude, munduko gobernantzaren erronkei aurre egiteko eredu jasangarriak aplikatzea ahalbidetu dezaketenak; kristalezko sabai guztiak hautsi egin litezke behingoz, Hegaoalde Globalaren «betiereko» zorrak kitatu, aberastasunari zerga askoz handiagoak ezarri, ekosistematan eragin txikiagoa izango duen kontsumo arduratsua sustatu, oinarrizko errenta aplikatu, AA edo iristear dena giza etikaren zerbitzura jarri, eta askoz gehiago. Horretarako nahikoa dira sena, koherenzia, eraldatzeko gogoa eta gure jarrerak nabarmen aldatzea, bai eta, jakina, gizateriaren orainaren eta etorkizunaren alde argi eta garbi egitea ere.

**Juan Carlos Vázquez**  
KCD GGKE Zuzendaria

## 2 | GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA-EKINTZAK EUSKADIN

Garapen jasangarrirako eta Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzarako funtsezko faktoreak dira kultura-anitzasuna, artea eta gizarte-eraldaketarako komunikazioa; izan ere, pertsonen bila-kaera, begirada kritikoa eta herritarren partaidetza sustatzen dituzte, besteak beste. Artistek eta kultura-sustapenek —idazkuntzaren, poesiaren, zinemaren, dantzaren eta beste arte askoren bidez— emozioak eta balio positiboak pizten dituzte, norbanakoengan zein maila kolektiboan. Oso beharrezkoa den adimen-garapena dakarte, pentsamendu ekonomizista hutsetik askoz haratago doana.

KCD GGKEn, Kultura eta Komunikazioa garapenerako faktore garrantzitsutzat aipatzen ditugunean, jasangarritasuna, genero-ekitatea, kulturartekotasuna eta giza eskubideak ditugu gozoan.

Gizarte-eraldaketarako komunikaziotzat jotzen ditugun komunikazio-prozesu edo -produktuek justizia eta guztien ongia sustatzeko aldaketak bultzatzen dituzte, beren garapenean edo emaitzen bidez.

### **KCD GGKEren Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako proiektuen lan-ildoak:**

- **Izaera soziala duten ikus-entzunezko materialak —genero-ikuspegia ere kontuan hartzen dutenak— zabaldu eta sustatzeko gune alternatiboak sortzea**, adibidez, Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Jaialdia (munduko zinemaldi parekide bakanetako bat), Emakumeek egindako Zinemaren Karabana, edota KCD GGKEk antolatutako proiezioak.
- **Harremanak, sareak eta proiektuak sortzea**, munduan Garapenerako Komunikazioaren arloa lantzen diharduten pertsonak eta erakundeak lotzeko. Ildo horretan, KCDk Kulturari, Komunikazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Topaketak antolatzen ditu eta horietan parte hartzen du, eta munduko herrialde askotako komunikatzaileak biltzen dituen CAR sa-rearen sortzaileetako bat da.
- **Ikus-entzunezko lanen bidez agerian uztea genero-desberdinkeria, eta emakumeen ahalduntzea bultzatzea komunikabideetan.** Horretarako, emakumeei zuzendutako zinema sozialaren inguruko prestakuntza-tailerrak antolatzen dira, emakumeek egindako zinemaren erakustaldiak egiten dira eta Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Jaialdian sari bereziak ematen dira, «Emakumeek egindako zinemaren zuzendaririk onenaren saria» eta «Genero-ekitatearen saria», hain zuzen.
- **Kulturaren, komunikazioaren eta garapenaren arloan prestatzeko eta trebatzeko gune alternatiboak sortzea.** Xede horrekin, lanbide-heziketako eta batxilergoko ikasleei zuzendutako komunikazio-kudeaketako ikastaroak eta zinema sozialari buruzko lantegiak egiten dira.
- **Emakume zinemagileen ikus-entzunezko lanak bultzatzea, bereziki Hegoalde Globaleko egileenak**, zinema-sektorean genero-arrakala txikitzen eta genero-estereotipoak apurtzen laguntzeko.
- **Liburuak argitaratu eta editatzea, erakusketak antolatzea**, emakume artistak kontuan hartuta, eta, era berean, berdintasunaren aldeko ekimenak eta emakumeen eta gizonen berdintasunezko partaidetza sustatzen dutenak aurrera eramatea.

### **Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren arloko ildo estrategikoak:**

1. Kultura eta gizarte-komunikazioa zabaldu eta sustatzea, Giza Garapen Jasangarria lortzeko ezinbesteko tresnak baitira, ospetsuak gainera.

2. Zinema soziala hedatzeko guneak finkatu eta zabaltzea, garapen jasangarria, genero-ekita-tea, kulturartekotasuna eta giza eskubideak sustatzeko.
3. Kulturaren, Komunikazioaren eta Garapenaren inguruan eztabaidatzeko, partekatzeko, hausnartzeko eta proiektuak eta ekintzak sustatzeko foroak finkatu eta zabaltzea.
4. Batxilergoko eta lanbide-heziketako ikastetxeekiko aliantzak areagotzea, zinema gizarte-eraldaketarako tresna gisa erabiltzeko.
5. EHUREkiko aliantzak finkatzea, zinema gizarte-eraldaketarako tresna gisa erabiltzeko.
6. Emakumeen eta/edo emakume-taldeen artean ikus-entzunezko komunikazioko prestakun-tza hobetzea, istorioak zabaltzeko eta politikoki eragiteko.
7. Emakumeen ahalduntzea sustatzea zinema sozialaren ekoizpenean eta zabalpenean.
8. 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJHak) ezagutzen ematea euskal gi-zarteko askotariko sektoreen artean.

KCD GGKEk Euskadin egiten dituen jarduerak gizarta eraldatzeko hezkuntzaren estrategia-ren barruan kokatzen dira, hau da, **gizarte-aldaketarako eta garapenerako tresna** gisa. (H) abian 2030 estrategiarekin bat etorri, irizten diogu gizarte-eraldaketarako hezkuntzak **pentsamendu kritikoko prozesuak** bultzatzea ahalbidetzen duela, eta gizartearren aurrean ez ezik nor-beraren bizitzaren aurrean ere kontzientzia duten pertsona ahaldunduak eta arduratsuak susta-tzen dituela. Hala sortzen dira bizitoki dugun errealitatea eraldatu nahi duten herritar globalak.

Kategorizazio horrek aukera ematen digu begirada bat eskaintzeko, globaltasuna eta tokikota-suna lotuz, itxuraz urrun dauden errealitateak hurbilduz eta ezaugarri desberdinak eta egoera batzuen eta besteen arteko loturak ulertzten lagunduz.

### **BILBOKO «FILM SOZIALAK» ZINEMA IKUSEZINAREN NAZIOARTEKO JAIALDIA**

Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiaren 15. edizioak zinema kon-prometitua eskaini du 2023an ere, **bizi garen munduaren aniztasuna irudikatzea helburu** due-na, eta, ildo beretik, arazoak eta haietarako soluzio-proposamenak aurkeztu ditu.

Zinema-jaialdiaren oinarria da sinestea **komunikazioa eta kultura oinarrizko giza eskubideak** direla, eta, aldi berean, beste eskubide batzuk egikaritzea ahalbidetzen eta errazten dutela, bai eta Garapen Jasangarrirako Helburuak eta 2030 Agenda lortzen aurrera egitea ere. Alabaina, eskubide hori ez dute berdintasunez baliatzen pertsona, lurralte eta herrialde guztiekin. Gizarte-ko eragile bakoitzak aukera berberak izan beharko lituzke ahotsa altzatzeko eta komunikabide masiboen edo orotariko kultura-adierazpenen bidez entzunarazteko, baina hori ez da gertatzen, komunikabide handien gainean gauzatzen den kontrola dela eta.

Urtero bezala, dinamika hori apurtzen laguntzeko eta **kontzientzia sozial kritiko eta eraldatzai-lea duten herritarra sustatzeko** sortu da «Film Sozialak» jaialdiaren 15. edizioa. Horretarako, zinema gizarte-eraldaketarako komunikazio-tresna gisa agertzen da, gizartean eta askotariko pertsonetan eragiteko duen gaitasunagatik.

Zinemak gure denboraren zati handi bat hartzen du, milioika pertsonak eskura dezaketen zer-bait da; indar soziokultural izugarria du, bai eta pertsonen bizitzetan eragiteko gaitasuna ere. Zinemak beti izan du entretenimendurako bokazio berezia, baina hori baino gehiago ere bada. Zinema sozialaren bidez, askotariko hizkuntzak bistaratzen dira, gauzak ulertzeko eta ejiteko bestelako moduak azaleratzen; kultura eta hausnarketa ipintzen ditu gure eskura, eta jarrerak eta ohiturak alda ditzake. Lagungarri izan dakigu ke arazoen eta haien balizko soluzioen berri-izateko, ezagutzen ez ditugun munduak aurkitzeko eta enpatia pizteko.

2030 Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuen babespean, Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiak **emakumeak, gizonak eta gizarte-kolektiboak indartzea du helburu, Euskadin gizartea eraldatzeko agente gisa**, Iparraldearen eta Hegoalde Globalaren arteko errealtitate desberdinak eta elkarrekin lotuak kontuan hartuta.

KCD GGKEren ibilbideari eutsiz, «Film Sozialak» Euskal Autonomia Erkidegoan, estatuan eta nazioartean indarrean dagoen arau-esparruan gauzatzen da, guztia ere KCD GGKEren estrategia instituzionalarekin, (H)abian 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia-rekin eta lankidetzari buruzko indarreko euskal legearekin bat etorri.

### ***Ikus-entzuleen nondik norakoak***

Pandemiaren ondoren, Euskadiko zinema-aretoek galdu egin dute ikusleen parte handi bat. Euskadiko Zinema Aretoen Elkarteak (EZAEk, zinema-areto pribatuak barnean hartzen dituenak), emandako datuen arabera, lurralte osoan pandemia aurreko ikus-entzuleen % 43 galdu dela kalkulatzen da.

Euskadiko zinema-aretoetan pandemiaren ondoren izan den ikusleen beherakada orokorra gorabehera, 2023ko azken edizioa arrakastatsua izan da: 12.904 lagun izan dira aurrez aurre saioetan, eta horiei gehitu behar zaizkie *Klikatu Zinema Ikusezina* plataformaren bidez palmareseko filmak online ikusi dituzten 565 pertsona gehiago. Guztira, **2023ko zinema-jaialdiak 13.469 ikus-entzule izan ditu, % 55 emakumeak**.

15 edizioetan, guztira, **122.849 ikusle baino gehiago izan ditu, eta horietatik % 55 emakumeak dira**. Ikusleen partaidetzan izan den etengabeko gorakadarekin agerian geratu da jaialdiak ko-



Jaialdia eta "Eraikitzen ari garen bideak" erakusketa Bilboko hainbat kaletan zabaltzea

munitatean duen eragin positiboa, bai eta jendearen interesa eta konpromisoa luzaroan iraunazteko duen gaitasuna ere.

Zinema Ikusezinak oso argi dauka filmak erreminta pedagogiko biziki indartsuak izan daitzkeela, eta horregatik egin du KCD GGKEk zinema-jaialdi hori ikastetxeetan sartzeko apustua: **ikusleen ia % 75 batxilergoko eta lanbide-heziketako ikastetxeetako ikasleak eta irakasleak dira.**

2023ko edizioaren amaieran, **16 ikastetxek** hartu dute parte zinema-jaialdian, eta **9.958 ikaslekin** lan egitea lortu da. Nabarmenzekoa da, gainera, **ikastetxe horietako 644 irakasleren** laguntza izan dugula kopuru horiek lortzeko. Irakasle horiek, besteak beste, saioak dinamizatu dituzte, ekintza eta jarduera paraleloak prestatu dituzte... Azken buruan, haiek arduratzentzira zinema-jaialdiari etekin osoa ateratzeaz.

**Bilboko “Film Sozialak” Nazioarteko Zinema ikusezinaren Jaialdira etorritako publikoa 2009 - 2023**



### **2023ko lanen hautaketa**

**Lehiaketarako programatu diren 64 lanetatik bost** batxilergoko eta lanbide-heziketako ikasleek Ikusleen Klaketa tailerretan egindakoak dira. Ikastetxeek oso positibotzat jo dute elementu hori.

Jasotako lanen **% 35 emakumeek zuzendu dituzte —bakarrik edo lankidetzan—**, baina, programazioari begiratuta, ehuneko hori **hautatutako obren % 47ra eta emanaldien % 53ra** iritsida.

Zinema-jaialdiaren alderdi garrantzitsuenetako bat **aniztasuna** da, hainbat adierazleren bidez neurten dena:

- Azken hautaketan, orotara **55 herrialde** edo lurralte daude ordezkatuta.
- **12 filmek, guztizkoaren % 18k, Afrikako herrialdeak ordezkatu dituzte, eta 38 sainotan proiektatu dira, guztizkoaren % 28tan.** Obra horien hautaketa Senegalgo Hahatay Son Ríos de Gandiol GGKEaren laguntzaren bidez egin da, besteak beste.
- Zinema indigena komunitarioko 5 film ekarri ditugu, Coordinadora Latinoamericana de Cine y Comunicación de los Pueblos Indígenas elkartearren lankidetzari esker.
- **Euskarazko 7 film** hautatu dira (% 11, emanaldien % 14).
- Filmen **% 48,4** gaztelaniazko eta/edo euskarazko azpitituluekin erakutsi dira edo ez dute el-karrizketarik, eta hori horri esker ulergarriagoak izan dira gorrentzat. Emanaldien **% 37,7tan** azpitituluak ingelesez, frantsesez, alemanez eta beste hizkuntza batuetan eman dira, eta hori lagungarria izan da nazioarteko ikusleak zenbait film ikustera erakartzeko.

KCD GGKEn badakigu gutxi direla euskaraz egindako film sozialak, urtean ez baitugu horrelako askorik jasotzen. Hala ere, euskarazko lanak ugaritzeko dugun eragin-marjina estua den arren, zinema-jaialdian euskarak presentzia nabarmena izan dezan egiten dugu lan. Azken urteetan, euskaraz eskaintzen diren emanaldien ehunekoa handiagoa da hautatutako euskarazko filmen ehunekoa baino. Hala, euskaraz egindako zinemaren zabalkundeak bultzatzen ahalegintzen gara.

### **Ekitatearen aldeko apustua**

KCD GGKEk ekitatearen aldeko apustu irmoa egiten du, errealtitatearen azterketa eta plangintza estrategikoa kontuan hartuta.

Apustu horrek inpaktu zuzena du filmen hautaketan eta proiekzioan. Hala, bi kasuetan, **emakumeek zuzendutako lanak % 40-45era** iristen dira. Bestalde, emakume zinemagileen presentzia parekidea izan da Bilboko zinema-jaialdian.

Ekitatearen aldeko apustu horretan, bada erabakigarria den beste faktore bat: emakume zinemagileen berariazko aintzatespna. Ildo horretan, gainera, **kategoria espezifiko bat dago, genero-ekitatearen ikuspegi onena duten lanak saritzen dituena**.

Era berean, **epaimahaikide-hirukoteak** mantendu dira kategoria bakoitzean, **bi emakumek eta gizon batek** osatutakoak. Estrategia horren ondorioz, 2023an, **emakumeek bakarrik edo lan-kidetzan zuzendutako filmek eraman dituzte sarien % 52**. Beraz, emakume sarituek egindako lanen batezbestekoa askoz handiagoa izan da sektorekoa baino.





June Moon kantariaren emanaldia, 2023ko Bilboko15. FICIren inaugurazio-ekitaldian



Giza eskubideen defendatzaleei aitorpena: Morena Herrera (El Salvador), Jomary Ortegón (Kolonbia) eta Fred Rahal (Brasil), 2023ko Bilboko15. FICIren inaugurazio ekitaldian

### **Jasotako obrak eta emakumeek egindakoak 2010-2023**





Azkenik, kontziliazioa errazteko, Zinema Ikusezina **aitzindaria izan da haurtzaindegia-zerbitzua jartzen** Bilboko egoitza nagusira joaten diren zinemagileentzat eta genero guztiako ikusleentzat. 2022tik, jaialdiak gune hori berreskuratu du.

### **Zinema sozialaren ekoizpena eta hedapena bultzatzea**

Filmei eta obretan nabarmenzen diren gaiei ikusgarritasun eta ibilbide handiagoa emateko, zinema-jaialdiak 13 sari berezi eman ditu azken edizioan, hainbat kategoriatan. Sariak berezkoa duen prestigioaz eta ikusleen errekonozimendua gainera, **2023an guztira 22.000 euro eman dira saritan**, hainbat erakunde publikoren eta pribaturen laguntzari esker.

### **JAIALDIKO 13 SARIAK**

1. Jasangarritasuna
2. Giza eskubideak
3. Emakume batek egindako lanik onena
4. Genero-ekitatea
5. Kulturartekotasuna
6. Balioetan oinarritutako hezkuntza
7. Ikusleen saria
8. Euskaraz egindako lanik onena




Folk Kuttune taldearen emanaldia, 2023ko Bilboko15. FIClren amaierako ekitaldian



Loratzen dantza taldearen emanaldia, 2023ko Bilboko15. FIClren amaierako ekitaldian

9. Zinema Ikusezina
10. Ikusezina Express
11. Ikusezina Express ikusleen saria
12. Gazteen Klaketa
13. Gazteen Klaketa ikusleen saria



Zinema-jaialdiari buruzko informazio gehiago: <https://www.kcd-ongd.org/15ºedicion>

## ERAKUSKETAK

### ***“Gure tokiaren bila”***

*Gure tokiaren bila* erakusketa argazkiz eta dokumentuz osatua da, eta emakumeek Kubako herriatasunaren eta nazioaren eraikuntzan egindako ekarpena jorratzen dute guztiek ere. Bilbon inauguratu zen, 2019an, «Film Sozialak» Nazioarteko Zinema Ikusezinaren Jaialdiaren 10. edizioan.

Erakusketari forma ematen dioten dokumentu gehienak Kubako Julio César González Pagés doktorearen artxibo historikoaren parte dira. Erakusketa osatzen duten materialak Marilyn Solaya zinema-zuzendari kubatarrok 2019an eginiko *Gure tokiaren bila / En busca de un espacio* dokumentalaren parte izan ziren. Solayak berak zuzendu zuen erakusketa ere, zeinak Neida Peñalver aditua izan baitzuen komisario —kubatarra hura ere—.

Erakusketa Bilbon inprimatu zen, eta orain erakusketa ibiltaria da Kuban. Kubako mugimendu feministaren historia, emantzipazio-prozesua eta ekitatearen aldeko borroka bistaratzen ditu irudi argitaragabeen bidez. Era berean, uharte hartako emakumeak protagonista izan zituzten gertaera garrantzitsuak jasotzen ditu, baita XX. mendearren hasieran Espainiako estatutik Kuba aldera egin zuten emakumeen kultura-ondarearen lekukotza grafikoak ere.

Marilyn Solaya zinemagile kubatarrok urteak daramatza lanean **fikziozko film bat** egiteko, ***Gure tokiaren bila*** projektua oinarri harturik.

### ***“LUMINISZENTEAK”***

**Igone Mariezkurrena Fernandez** kazetariak eta **Irantzu Pastor Ordoki** argazkilariak egindako lan bikain honen berri izan bezain pronto, KCD GGKEk inolako zalantzak gabe erabaki zuen babestea.

**LUMINISCENTES, emakumeen kontrako indarkeria ikusezinak** erakusketa Bilboko «Film Sozialak» Nazioarteko Zinema Ikusezinaren Jaialdiaren 13. edizioaren esparruan inauguratu zen,

2021ean, eta liburua ere argitaratu zen. KCD GGKEren ustean, oso garrantzitsua da **hainbat emakumeren testigantzen eta irudien erregistro hori**, zeinetan arazo berbera partekatzen baita: **gizonak nagusi diren sistemen pean bizitzearen ondorio negatiboak**.

2023an hainbat lekutan izan da ikusgai: Donostian, Bakion, Elgoibarren, Berriozarren, Zarautzen, Elorriion, Mutrikun, Astigarragan eta Artiedan.

### ***"Ekimena Senegalen"***

Erakusketa 2022an inauguratu zen, «Film Sozialak» Nazioarteko Zinema Ikusezinaren Jaialdiaren 14. edizioan. Senegalgo Hahatay Son Risas de Gandiol GGKEak, KCD GGKEk eta Dakarren bizi den **Marta Moreiras** fotokazetari espanyiarak elkarrekin egindako erakusketa da, eta zati bat Saint Louiseko (Senegal) Massow Ka argazkilariaren irudiek osatzen dute.

Erakusketaren bidez, euskal herritarrek askotariko argazkiak ikusteko aukera izan dute: alde batetik, gaur egun beren komunitatea eta etorkizuna eraikitzen ari diren Gandioleko zenbait gazteren irudiak, batez ere emakumeenak, eta, beste aldetik, Saint Louis hirian eta Senegalgo iparraldean dagoen Gandiol landa-komunitatean bizi diren gazte ekintzaileen erretratuak.

Erakusketa horretan hainbat formatu erabili ziren, guztiak ere zinema-jaialdiaren aurreko edizioan ikusgai izan zen espazioei lotutakoak, eta ***"Ekimena Senegalen"*** da haien guztiak batu zituen gaia.

2023an, erakusketaren zati bat zinema-jaialdiaren lankidetza duten hainbat ikastetxetan jarri dute ikusgai: IES MUNGIA BHInren Santa Maria eta San Pedro eraikinetan, CIFP Barakaldo LHIn, IES ARTAZA-ROMO BHIn, Galdakaoko IES BENGOETXE BHIn eta Abadiñoko Kultura-aretoan.

### ***"Bideak eraikitzen"***

Kultura Communication Desarrollo – KCD GGKEaren iritziz, Gizarte Eraldatzeko Komunikazioa funtsezko tresna da kulturartekotasuna, aniztasunarekiko errespetua eta diferentziarekiko enpatia sustatzeko.

Estrategia horren ildokoa da ***Eraikitzen ari garen bideak*** proiektu artistiko-fotografikoa, Angélica Das artista bisualak eta Euskal Herrian bizi diren 21 eta 25 urte bitarteko 12 gaztek elkarlanean osatutako 12+1 taldeak sortua.

Argazki intimisten bidez, zenbait gai aztertu ditu proiektuak, besteak beste, gazteria, immigrazioa, nortasunak, ametsak, kidetza, familia eta adiskidetasuna. Prozesuan album familiarra erabili dute. Teknika horren bidez, askotariko kulturetako esperientzia pertsonalak erakusten dira, eta gizateriak partekatzen dituen alderdiak ikusarazten dira; horrek pertsonen arteko lotura emozionala errazten du.

Erakusketen ikusten den bizitza-puzzlek gogoeta egitera garamatza, eta giza bizitzaren aniztasuna eta aberastasuna errespetatzeko deia da.

12+1 taldeko kide dira Angelica Dass, Ainhoa, Irati, Steven, Ikram, Fatima, Ahmed, Mirian, Ariane, Ekaitz, Jair, Mouhssine eta Erica.

Emaitza: formato ugariko argazki-erakusketa, iraganari begiratuz oraina aurkezten diguna, etorkizun kolektibo bat gogoan duela. Formatuen artean daude:

- Bilboko Udalak hiriko kalerik jendetsuetan jarritako 5 publizitate-kubo. Udalarekiko lan-kidetza horri esker, espazio publikoak erabiltzeko aukera izan dugu.
- Bilboko Alondégian «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdian zehar ezarritako 12 panel mugikor; ondoren, zinema-jaialdiarekin bat eginiko ikastetxeetan zehar bildiatzen jarraitu dute, zentrootan erabiltzeko eta gozatzeko.



YO(OTROS) argazkigintzako proiektu kolektibo bat, Angélic Dassekin

- Bilboko bi geltoki jendetsuenetako tuneletan —Abandokoan eta Moyuakoan— zinema-jaialdiaren garaian jarritako 13 panel.

Gainera, bigarren urtez jarraian, Bilborock aretoan egin da erakusketaren inaugurazio-ekitaldi irekia. Bertan egon ziren 12+1 taldeko kide batzuk, eta prozesuari eta ikasitakoari buruz hitz egin zuten bertaratutakoekin.

Emanaldi artistikoak eta cocktailak ere izan ziren ekitaldian. Ekimenaren helburua honako hau da: Bilboko herriarrei aukera ematea erakusketara harekin lotura duten pertsonen eskutik hurbiltzeko, argazkilariak edo erakusketaren komisarioak aurrez aurre ezagutzeko, jorratzen diren gaien inguruan interesa duten beste pertsona batzuekin elkartzeko, iritziak eta esperientziak partekatzeko, aliantzak sortzeko...

Erakusketari buruzko informazio gehiago: <https://www.kcd-ongd.org/exposiciones?lang=eu>



“Eraikitzen ari garen bideak” erakusketaren inaugurazioa, Bilborock aretoan

## KULTURARI, KOMUNIKAZIOARI ETA GARAPENARI BURUZKO NAZIOARTEKO TOPAKETA

**«Ondarea, ekonomia eta komunikazioa genero-ikuspegiarekin»** 14. Topaketa maiatzaren 22an eta 23an egin zen, Bizkaia Aretoan, EHUn Uda Ikastaroen esparruan, kulturen arteko elkarrizketaren bidez imajinario sozialen eraldaketa sustatzeko helburuarekin. Horretarako, Kubatik, Senegaletik, Kolonbiatik, Mexikotik eta Euskal Herriktik etorritako emakume espezialisten taldea elkartu genuen. Ondare materialari eta immaterialari buruz hitz egin zuten —begirada feministaren ikuspegitik—, eta kulturan eta herrien garapenean duen eragina aztertu zuten.

Ekitaldia zenbait ataletan banatu zen, eta horri esker gaiak zabal garatu ziren. Ohiko hitzaldiekin batera elkarrizketarako eta hartu-emanetarako guneak izan ziren. Emanaldi artistikoa ere eskaini ziguten. Bertan, umorearen bidez, gizarteko edozein alderdiri generoaren ikuspegitik heltzeko beharra nabarmendu zen. Bukatzeko, talde-hausnarketa egiteko tartea izan zuten parte-hartzaileek.

Topaketaren inguruan oso balorazio positiboa egin dugu. Senegal, Kolonbia, Mexiko, Kuba eta Euskal Herriko 14 emakume profesionalek hartzeko zuten parte. Haiek batera, Euskal Herriko, Espainiako estatuko eta munduko beste herrialde batzuetako 126 lagun bildu ziren aurrez aurre, eta beste 33 partaidek online egin zuen bat. Hegoalde Globaleko ordezkarriak, kasu honetan emakumeak, aditu eta ezagutza- zein iritzi-sortzaile gisa azal zitezela lortu nahi zen, eta Topaketan helburu hori bete da, parte-hartzaileen artean estereotipoak hautsita.

Azkenik, Topaketak aukera ematen du Hegoalde eta Iparralde globaletako eraldaketa-eragileen artean sinergiak sortzea xede duen estrategia indartzeko, alderdi hori neurtzeko zaila den arren.

Topaketari buruzko informazio gehiago: <https://www.kcd-ongd.org/encuentro?lang=eu>



Miren Elgareresta Emakundeko zuzendariaren hitzaldia, Kultura, Komunikazio eta Garapeneko 14. Topaketan



Kultura, Komunikazio eta Garapeneko 14. Topaketako Senegaleko eta Kubako parte-hartzaileak

## EMAKUMEEK EGINDAKO ZINEMA-KARABANA



Sylvie Gautier zuzendari frantzíarrarekin egindako foroa, 2023ko "Zinemagileen artean" Emakumezkoek egindako 12. zinema-karabanan



Emakumeentzako bideo parte-hartzailearen tailerrean egindako film laburraren aurkezpena, "Zinemagileen artean" Emakumezkoek egindako 12. zinema-karabanan

«Zinemagileen artean» emakumeek egindako zinemaren 12. Karabana egin da 2023an. Aurreko urteetan bezala, Amal Ramsis zinemagile egiptoarrak 2008an martxan jarritako emakumeek egindako zinema-erakusketa ibiltariak **topaguneak sortu ditu kultura arabiarraren eta beste kultura batzuen artean, Zinema Sozialeko zuzendarien lanak ikusarazi ditu eta zinemagileen arteko lankidetza-sareak sortu ditu.**

Maiatzaren 22tik 26ra egin zen, arratsaldeko hiru saiotan, Bilboko Alondegiko Golem zinema-aretoetan. Oraingoan sei film estrenatu genituen Bilbon, bi lan dokumental eta fikziozko lau. Askotariko gaiak jorratzen dituzte, Latinoamerikako, Europako eta Afrikako emakumeen begiradetatik.

Zuzendarietako bi Bilbora etorri zitzaizkigun, eta beste bik zoom bidez hartu zuten parte ekitaldian. Hala, ikus-entzuleek aukera izan zuten filmetako protagonistekin hitz egiteko, lanei, sorkuntza-prozesuei eta landutako gaiei buruz gehiago jakiteko.

Inaugurazio-ekitaldian, gainera, gure artean egon zen Egipton zinema-karabananaren sortzaile izan zena, bai eta Itxaso Diaz zuzendaria ere. Karabananaren esparruan, Diazek bideo-tailerra egin zuen emakumeekin, eta horren emaitza aurkeztu zuen, sortzaileekin batera.

Karabanan saioetan **434 ikus-entzule** izan ziren, guztira; horietatik erdiak zuzendariek hitz egiteko aukera eskaini zuten saioetara joan ziren. 12. Karabanako ikus-entzuleen % 24 gizonak dira (% 20 elkarritzeta-foroa egin zen saioetan), eta hori lagungarria izan da genero-estereotipoak eta jarrera zein portaera matxistak gainditzeko.

Edizio honetako datuek erakusten dutenez, bertaratu diren pertsonen kopurua ia bikoitzu egin da aurreko Karabanara bildutakoekin alderatuta. Beraz, Karabanan zinema komertzialaren alternatiba izaten jarraitzen du, eta emakumeen ikuspuntuetatik landutako bestelako proposamendetara hurbiltzeko aukera ematen du.

Karabanari buruzko informazio gehiago: <https://www.kcd-ongd.org/caravana?lang=eu>

## IKASLEEN KLAKETA: GIZARTE-ERALDAKETARAKO KOMUNIKAZIO-TAILERRA

Gailu mugikorren bidez 3 minutuko bideo soziala sortzena bideratuta dago lantegien metodologia. Talde-lana sustatzen da, guztientzat interesgarria den gaia aukeratzea eta ondoren askotariko ikus-entzunezko narratibak sortzea.


Helburua ez da bakarrik bideoa egitea, parte hartzen duten ikasleen arteko eztabaidea- eta analisi-prozesua bera ere garrantzitsua da. Irakasleek eta ikasleek lankidetza estuan jardun behar dute, balioak sustatzeko eta tokiko zein munduko arazoen inguruko ezagutzetan sakontzeko.

2022ko abenduan ekin zitzaien 2022-2023 ikasturteko Ikasleen Klaketa tailerren koordinazio-lanei, egutegiak osatuz, eta maiatzaren 2023an bukatu zen ekimena. Edizio horretan 9 ikastetxeek hartzu dute parte, 16 taldetan banatuta (horietatik 9 euskarazkoak). Tailerrak aldez aurretik fin-kututako gidoiaren arabera egin ziren. Ikastetxe guztietan eskema bera erabili zen: bina orduko lau saio gehi saioen arteko lan praktikoa.


Tailerretan ikasleek 63 bideo egin dituzte guztira, eta 153 neska eta 123 mutil izan dira partaide. Bideo guztietatik % 42 euskaraz egin dituzte. Azpimarragarria da ikastetxeetako irakasleen parte-hartzea. Irakasleek —15 emakumek eta 9 gizonek— egindako ekarpenak eta haien implikazioa lagungarriak izan dira eztabaadarako eta hausnarketarako guneak sortzen, eta tailerretako prozesua aberastu dute.

Ikasleen Klaketa tailerreitik buruzko informazio gehiago: <https://www.kcd-ongd.org/ikasleen-klaketa>

**Egindako film-laburrak**



**Ikasleen Klaketa 2023ko partaideak**





Ikusleen Klaketa tailer-saio bateko ikasleak

## EMAKUMEENTZAKO BIDEO-TAILER PARTIZIPATIBOA

Ikusirik begi-bistakoa dela genero-desberdinkeria, Kultura Communication Desarrollo —KCD ONGD— erakundeak **hainbat gune jarri ditu abian ikus-entzunezko komunikazioaren esparruan emakumeen ahalduntzea indartzeko.**

Apirilaren 17tik 21era Emakumeentzako bideo-tailer partizipatiboa eskaini zuen Itxaso Díaz zinema-zuzendari bilbotarrak. Zortzi emakumek hartu zuten parte guztira (11 lagunek hasi zuten tailerra, baina zenbait arrazoi tarteko, batzuek ez zuten bukatu).

Erabiltzen ez duten ikus-entzunezko baliabidearen inguruan jakin-mina duten emakumeei zuzendutako tailerra izan zen. Parte-hartaileek tresnei buruzkoak ikasteko aukera izan zuten, horien bidez euren istorioak kontatu ahal izateko. Oinarrizko alderdi teknikoetara hurbiltzeko tailerra izan zen, eta partaideei emakume izatearen inguruko introspekcioa proposatu zitzaien.

Proposatutako metodologia talde-lanean oinarritu zen. Guztien artean zehaztu zuten gaia, edukiak sortu zituzten eta talde-hausnarketa egin zuten. Hala, guztiak parte hartu zuten bideo bakar bat sortzeko lanean. Beraz, aurretik elkar ezagutzen ez zuten askotariko emakumeen arteko entzuketa- eta lankidetza-ariketa izan zen, eta emaitza kolektiboa sortu ahal izan zuten.

Lan hori, **No mires**, emakumeek egindako zinemaren Karabanaren lehenengo egunean aurkeztu zuten, eta 94 lagunek ikusi ahal izan zuten pantaila handian. KCD GGKEren Vimeo kanalean dago ikusgai, eta *Klikatu Zinema Ikusezina* plataforman eta KCD GGKEren webgunean eskura daiteke. Era berean, parte-hartaileek kopia bana jaso zuten, sare sozialetan partekatu ahal izateko.

Tailerrari buruzko informazio gehiago: <https://www.kcd-ongd.org/escuela-kcd?lang=eu>



Emakumeentzako bideo-tailer parte-hartaileko ikasleak, Itxaso Díaz dokumentalistak eskainia

## KLIKATU ZINEMA IKUSEZINA STREAMING-PLATAFORMA

Zinemak erakarpen-gaitasun handia du, eta horrek tresna ahaltsu bilakatzen du hezkuntza arautuan zein arautu gabean baliatzeko; hori horrela, aukera ugari eskaintzen ditu. Ildo horretan, Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia ikastetxeen aliatu bihurtu da. **Zinema sozialaren bidez, irakasleek eta ikasleek filmak baliatzen dituzte gogoeta egiteko, gai jakin batekin sentsibilizatzeko eta gai konplexuak aztertzeko.**

Hori dela eta, KCD GGKEk eta zinema-jaialdiak ahalegin nabarmena egiten dute lanbide-heziketako eta batxilergoko zenbait ikastetxeri hezkuntza-lanean laguntzeko, guztia ere zinema soziala zabalduz. Horretarako, zinema-jaialdiaren programazioaz gainera, aipatzeko da *Klikatu Zinema Ikusezina* izeneko streaming plataforma.

Ikaskuntza- eta jakintza-teknologien kontzeptuan oinarritutako **tresna pedagogiko** gisa sortua da plataforma, irakasleak eta ikasleak informazioaren eta komunikazioaren teknologien (IKT) erabilera arduratsuago eta informatiboago batera bideratu ahal izateko.

*Klikatu Zinema Ikusezina* streaming plataforman, Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiaren edizioetan hautatutako **150 film** inguru eskaini dira 2023an, eta, hari esker, ikastetxeen esku geratzen dira ikasturte osoan. **Gaur egungo nazioarteko zinema sozialaren** panoramika eskaintzen da horrela, dokumentalaren, fikzioaren eta animazioaren genero cinematografikoetan; lanik gehienak film laburrak dira, eta plataforma ikastetxeen beharretara egokiturik dago.

Hautaketa horrek aukera ematen die ikastetxeei askotariko gaiak luze-zabal jorratzeko, hala nola jasangarritasuna, genero-ekitarea, kulturartekotasuna, giza eskubideak eta abar. Emanaldiak **tokian tokiko eta mundu zabaleko errealityeen arteko loturak** ikusarazten dituzte; horri esker, beste kultura batzuk eta bizitza ulertzeko bestelako moduak ezagutzeko aukera ematen dute, eta, era berean, herritartasun globalaren erantzunkidetasuna sustatzen dute. Horretaz gainera, ekintzarako deia dira, gaur egun gizateriak aurrez aurre dituen erronkei erantzuteko.

Zinema-jaialdiarekin lotutako ikastetxe bakoitzari erabiltzaile eta pasahitz bat ematen zaio, baita film bakoitzari buruzko informazioa biltzen duen katalogo bat ere, zeinean dagokion ardatz tematikoa eta filmarekin zerikusia duten Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) zehazten baitira, besteak beste.

Gaur egun, Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiarekin lankidetzan diharduten lanbide-heziketako eta batxilergoko 15 ikastetxeek soilik erabiltzen dute plataforma. Plataforma Euskadiko beste ikastetxe batuetara zabaltzea da etorkizuneko erronka, eta bideragarritasun ekonomikoa bilatzea, jasangarritasuna ahalbidetzeko eta filmen zabalkunde-esku-bideak ekonomikoki aitortzeko.

## TXOSTEN EKONOMIKOA

KCD GGKEk gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren esparruan 2023an egin dituen jarduerak honako erakunde hauen babesia dute:

<b>Erakundea</b>	<b>2023an GAUZATZEKO</b>
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (2022-2024 aldirako bi urteko proiektua. Guztira: 381.013,31 €)	153.000,92 €
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (izenduna) <i>Jaialdiko Garapen Jasangarriaren saria barne</i>	180.000,00 €
Bizkaiko Foru Aldundia (2022ko hezkuntza-proiektua eta 2023ko jarduerak) <i>Giza Eskubideen saria barne</i>	45.000,00 €
Bilboko Udalak (hitzarmena). <i>Genero-ekitatearen saria barne</i>	19.000,00 €
Getxoko Udalak (kontratua). <i>Euskarazko lan onenaren saria barne</i>	14.965,00 €
Barakaldoko Udalak (kontratua). <i>Balio Hezkuntzaren saria barne</i>	10.000,00 €
Mungiako Udalak (kontratua) . <i>Film Sozialak saria barne</i>	6.000,00 €
Abadiñoko Udalak (kontratua)	2.950,00 €
Euskal Herriko Unibertsitatea, EHU (hitzarmena) <i>Ikusezina Express saria eta Ikusleen Ikusezina Express saria barne</i>	2.250,00 €
Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea (izenduna) <i>Emakume batek egindako lanik onenaren saria barne</i>	2.000,00 €
Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritza (kontratua) <i>Kulturartekotasunaren saria barne</i>	2.000,00 €
Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsua (hitzarmena) <i>Ikusleen saria barne</i>	2.000,00 €
Euskal Irrati Telebista EITB Media SAU (kontratua) <i>Gazteen Klaketa saria eta Ikusleen Gazteen Klaketa saria barne</i>	2.000,00 €
Antzuolako Udalak (kontratua)	1.250,00 €
Zallako Udalak (kontratua)	1.200,00 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>443.615,92 €</b>

Era berean, KCD GGKEk jarraian azaltzen diren eta 2023an onartuta dauden dirulaguntza-funtsak ditu, 2024ko jarduerak egiteko. Horiei 2024ko deialdiei dagozkienak gehituko zaizkie, aurreikusita dagoenez.

<b>Erakundea</b>	<b>2024an GAUZATZEKO</b>
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (2022-2024 aldirako bi urteko proiektua. Guztira: 381.013,31 €)	228.801,39 €
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (izenduna) <i>Jaialdiko Garapen Jasangarriaren saria barne</i>	200.000,00 €
Bizkaiko Foru Aldundia (2023ko hezkuntza-proiektua eta 2024ko jarduerak). <i>Giza Eskubideen saria barne</i>	45.000,00 €
Bilboko Udalak (hitzarmena). <i>Genero-ekitatearen saria barne</i>	19.000,00 €
Getxoko Udalak (kontratua). <i>Euskarazko lan onenaren saria barne</i>	14.965,00 €
Barakaldoko Udalak (kontratua). <i>Balio Hezkuntzaren saria barne</i>	10.000,00 €
Mungiako Udalak (kontratua). <i>Film Sozialak saria barne</i>	6.000,00 €
Euskal Herriko Unibertsitatea, EHU (hitzarmena) <i>Ikusezina Express saria eta Ikusleen Ikusezina Express saria barne</i>	2.250,00 €
Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea (izenduna) <i>Emakume batek egindako lanik onenaren saria barne</i>	2.000,00 €
Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritza (kontratua) <i>Kulturartekotasunaren saria barne</i>	2.000,00 €
Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsua (hitzarmena) <i>Ikusleen saria barne</i>	2.000,00 €
Euskal Irrati Telebista EITB Media SAU (kontratua) <i>Gazteen Klaketa saria eta Ikusleen Gazteen Klaketa saria barne</i>	2.000,00 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>533.227,39 €</b>

## 2024KO JARDUERAK

2024an proiektu horiekin jarraitzea aurreikusi da, tartean dauden erakunde eta pertsonen babesarekin eta lankidetzarekin.

Honako hauek dira 2024an egingo diren jarduera nagusiak:

- «Zinemagileen artean» emakumeek egindako zinemaren 13. Karabana, maiatzaren 27tik 31ra.
- Kulturari, Komunikazioari eta Garapenari buruzko 15. Nazioarteko Topaketa: «Migrazioak, identitatea, bizikidetza eta antiarrazakeria». Irailaren 30etik urriaren 1era.
- Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko 16. Jaialdia, 2024, urriaren 10etik 17ra.
- Gizarte-eraldaketarako komunikazio-tailerrak, telefono mugikorrekin (Ikasleen Klaketa). Batxilergoko eta lanbide-heziketako 10 ikastetxetako ikasleentzat.
- Emakumeentzako Bideo Tailer Partizipatiboa.
- *Klikatu zinema ikusezina* plataformaaren garapena.

## **3 | GARAPENERAKO LANKIDETZA-EKINTZAK ATZERRIAN**

Hegoalde Globaleko herrialdeetan aurrera daramatzagun nazioarteko lankidetza-proiektuen bidez, kulturarekin, komunikazioarekin edota giza eskubideekin lotuta dauden eta genero-ikuspegia kontuan hartzen duten garapenerako lankidetza-prozesuei laguntzen diegu. Kontrako alderdien, GGKE-en eta gizarte zibileko elkarteen bidez egiten dugu. Erakunde horiek ongizate orokorrerako eta komunitateetako arazo zehatzak konpontzeko ekintzak, proiektuak eta prozesuak gauzatzen dituzte.

### **GARAPENERAKO LANKIDETZAREN ARLOKO ILDO ESTRATEGIKOAK HEGOALDE GLOBALEKO HERRALDEETAN:**

1. Kulturaren, komunikazioaren eta giza eskubideen arloan lan egiten duten pertsonak eta era-kundeak lotuko dituzten prozesuetan laguntzea.
2. Kulturarekin, komunikazioarekin eta giza eskubideekin lotura duten garapen-proiektuak aurrera eramateko funtsak bilatzea.
3. Genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea sustatzea kulturaren, komunikazioaren eta giza eskubideen bidez.

Kultura Communication Desarrollo KCD GGKEEn, lagun ditugun Senegaleko, Kubako, Mexikoko, Kolonbiako, El Salvadorreko eta Egiptoko kontrako alderdiekin batera, garapenerako ekimenak eta prozesuak bultzatzen jarraitzen dugu, tokian tokiko gaitasunak indartzeko, gizarte- eta kultura-gizarteratzea sustatzeko eta komunitateen ongizatea bultzatzeko. Eragin positiboa izan eta tokian tokiko biztanleria ahaldunduko duten kultura- eta gizarte-proiektuetan lankidetzan eta modu jasangarrian jardutea da gure konpromisoa. Elkarrekin mundu ekitatiboagoa eta bidezkoagoa eraiki nahi dugu, non pertsona guztiak hazteko eta aurrera egiteko aukerak izango dituzten.

KCD GGKEren apustua da, orobat, harremanak indartzea eta sareak sortzea garapenerako lankidetzaren eta eraldaketa sozialerako komunikazioaren eremuetan lan egiten duten erakundeen artean, guztia ere jakintzen transferentzia sortzeko.

Ildo horretan, Iparralde Globaleko GGKE-en eta erakunde publikoen implikazio trianguluarrari esker, jakintzaren transferentzia tresna ona da Hegoalde-Hegoalde lankidetza sustatzeko. Ondo koordinaturik, lurrealde-garapenekeko prozesu integratuak eta partaidetzen oinarrituak sustatzen dituzten programa berritzaileak bultzza daitezke, Hegoaldeko eta Iparraldeko erakunde pribatu eta publikoak ez ezik, eragile publikoak, pribatuak eta gizarte zibilekoak ere implikatuz.

Ildo horretan, bereziki nabarmentzen dugu KCD GGKEren, Habana Hiriko Historialariaren Bulegoaren (Kuba) eta Hahatay Son Risas de Gandiol GGKEaren (Senegal) artean duela lau urtetik hona egindako lana, kulturarekin eta ondarearekin lotutako esperientziak bateratu baitituzte Habanako (Kuba) hiri zaharrean eta Saint Louis (Senegal) hirian.

<https://www.kcd-ongd.org/cooperacion?lang=eu>

### **MEXIKO**

#### **KOMUNIKAZIO KOMUNITARIOA SAREAN, ETA INDARKERIARIK GABEKO BIZITZA JASANGARRIAK DEFENDATZEKO ETA BABESTEKO EKINTZA MEXIKON**

2024ko otsailean burutuko den proiektua lagungarria izan da komunikazio komunitario eraldatzailearen estrategia sarean zabaltzeko eta horretan sakontzeko. Estrategia berritzalea da, tokian tokiko zein maila globaleko ekintzara bideratuta dago eta ardatz ditu giza eskubideen eta horien defendatzaileen alde egitea, ingurumena zaintzea eta bizitza jasangarriak sustatzea, betiere genero-ekititatean oinarrituta, emakumeak eta herri indigenak buruan direla eta aliantzak eta gaitasunak indartuz.

Horretarako, 2023an hainbat ekintza eraman dira aurrera, besteak beste, honako hauek:

- Bizitzaren aldeko irratien estrategia komunitarioak diseinatu eta indarrean jartzea.
- Emakume komunikatzaileek prestakuntza teknikoan dituzten beharrei —genero-arrakalatzat jo direnei— aurre egiten laguntzea.
- Haurrei eta gazteei zuzendutako irrat-sorkuntzako eta -adierazpeneko tailerrak.
- Bizitzaren aldeko irrat-edukiak eta ikus-entzunezkoak ekoitzu eta antolatzea.
- Biziota jasangarrien aldeko Oaxacako Irrati Komunitarioen Sarea osatzea eta abian jartzea.
- Irratietan eta erakunde komunitarioetan generoaren gaian erreferentziazkoak diren emakumeentzako prestakuntza-prozesua.
- Maskulinitate ez-hegemonikoan erreferentziazkoak diren gizonentzako prestakuntza-prozesua.
- Indarkeria matxisten aurkako estrategia komunitarioak partaidetzaren bidez diseinatu eta ezartzea.
- Ojo de Aguaren produktuen, metodoen eta prozesu komunitarioen zabalkundea, haren era-gina biderkatzen.
- OdAren Zinema eta Irrati Komunitarioaren Jaialdiaren eta KCD GGKEren Bilboko Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiaren arteko elkarriketarako eta trukerako gune birtualak sortzea.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEAren) finantzaketari esker garatu ahal izan da ekimena —aurrekontu osoa 744.709,53 €-koa zen eta agentziak 593.842,50 € eman ditu—. Hala, jarraipena eman zaio KCD GGKEk eta Oaxacako Ojo de Agua Comunicación Indígena elkar-teak duela hamarkada bat baino gehiagotik bultzatzen duten baterako garapen-prozesuari. Egitasmo horrek Bizkaiko Foru Aldundiaren babesia jaso zuen 2012an eta, 2013tik aurrera, GLEArena jasotzen du bi urtez behin eta modu egonkorrean (dagoeneko sei proiektu onartu ditu GLEAk).



Prestakuntza-prozesua Oaxacako txontalen eskualdean.



Mix komunitateetako prestakuntza-prozesua

## MEXIKO



### **EMAKUMEAK ETA HERRI INDIGENAK ZINEMA ETA IRRATI KOMUNITARIOAREN II. JAIALDIA SAREAN ERAKITZEN, BIZITZA JASANGARRIAK MEXIKOTIK ERDIALDEKO AMERIKARAINO ZANTZEKO**

Aurrekoaren osagarri den proiektua 2023an hasi zen gauzatzen, GLEAk emandako dirulaguntzari esker —aurrekontu osoa 777.148,05 €-koa zen eta agentziak 599.575,62 € jarri zituen—. Komunikazio komunitario kontrahegemonikoa sustatzeko estrategiari jarraikiz, indarkeriarik gabeko bizitza jasangarriak sustatzeko lan egiten du, eta arreta berezia eskaintzen die emakumeen, defendatzaileen eta herri indigenen eskubideei.

Urtean zehar, aurrera egin da proiektuan aurreikusitako komunikazio komunitariooko bi gunetako lanetan, Nativitas Coatlán eta Jaltepec de Candayoc komunitateetan. Era berean, meatzaritzaren aurrean Txontal herria defenditzeko Radio Chontal irratia ekipamenduz hornitzeko prozesua burutzea lortu da.

**Zinema eta Irrati Komunitarioaren II. Jaialdia** koordinatzeko eta prestatzeko lanetan aurrera egin da. Lanak zabalduz eta informazioa trukatuz, isilarazitako ahotsak eta ikusezin bihurtutako begiradak ezagutzen eman eta bideratzeko plataforma izan nahi du Jaialdiak. Horretarako, sare-lana egiten du hainbat gizarte-erakunderekin, **ikuspegi antirrazista, despatriarkalizatzaile eta dekolonizatzalea** oinarri hartuta, kolektibo gutxitu horiek munduaren aurrean askotariko identitate baliotsuak dituzten eskubideen titular gisa agertzen.

## KOLONBIA



### SOLASKIDETZA DEFENDATZAILEEN, EMAKUMEEN ETA HERRI INDIGENEN ESKUBIDEEN ALDE LAN EGITEN DUTEN HAINBAT ERAKUNDEREKEN

KCD GGKEk garapenaren eta giza eskubideen aldeko prozesuak babes-tu ditu Kolonbian 2015etik, herrialde horretan bazkide duen José Alvear Restrepo abokatu-taldearen (CCAJAR) esku. Erakunde horrek borroka egiten du zigorgabetasunaren aurka, lurraldearen defentsaren alde eta justizia sozialean oinarritutiko bakea eraikitzearen alde. Gaur egun ez dago baterako proiekturik martxan, baina harremanetan jarraitzen dugu. Are gehiago, gure arteko harremana estutu egin da erakundeko zuzendaritza-batzordeko kide den Yessika Hoyos abokatuaren bisitaren bidez. Hoyos Bilbora etorri zen 2023ko abuztuan KCD GGKErekin biltzeko (zuzendariarekin eta herrialdearen ardura duen teknikariarekin), ekintza-lerroak eta etorkizuneko baterako lana adosteko.

Era berean, CCAJAR erakundeko lehendakari Jomary Ortegón Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren 15. Nazioarteko Jaialdian hartu zuen parte 2023ko urrian. Beste gonbidatu batzuekin eta KDCko taldearekin batera, KCD GGKEk gizarte-eraldaketa rako hezkuntzako ekin-tzetan lankide dituen zenbait institutu bisitatu zituen. Gainera, *BUSCADORAS: Teresa Quiñones* dokumentala aurkeztu zuen zinema-jaialdiak Bilbon dituen zenbait egoitzatan. Filmak 90eko hamarkadaren bukaeran desagertutako artista, sindikalista eta giza eskubideen zein emakumeen eskubideen aldeko ekintzaile baten historia kontatzen du.

Herrialdea garatzeko eta bake benetakoa, egonkorra eta iraunkorra eraikitzeko gobernu berriak eskaintzen dituen aukerak ikusirik, **KCD GGKEk berretsi egin du Kolonbiako gizarte zibilarekiko konpromisoa**, eta zenbait ikuspegi eta esperientzia partekatu ditu hango erakundeekin —giza eskubideen aldekoak, feministak eta ekologistak—, lankidetza zehatzak ekarriko dituzten sinergien bila.



Jomary Ortegon CCAJAReko zuzendariaren parte-hartzea 2023ko Bilboko15. FIClan

## KUBA



### HABANA ZAHARRAREN GARAPEN INTEGRALA SUSTATZEA, ONDAREAREN GOZAMENERAKO ETA BABESERAKO, GIZARTEA ERALDATZEKO KOMUNIKAZIO-TRESNEN BIDEZ

Ekimena abian da, GLEAren finantzaketari esker —aurrekontu osoa 751.396,47 €-koa zen eta agentziak 597.469,85 € eman ditu—.

2023an Kultura Garapen Komunitarioako Gunearen egoitza fisikoa inauguratu da. Erakundeak liderra da bidezko parte-hartzea eta komunitateak komunitatearentzat zuzendutako ondasun eta zerbitzu soziokulturalen artikulazioa sustatzeko lanean, eta protagonismo berezia ematen die emakumeak buru dituzten ekimenei.

2023an ere **auzuneetako proiektu soziokultural** batzuen aurkezpen artistikoak gauzatu dira, Habana Hiriko Historialariaren Bulegoak sortutako erakunde eta proposamen kulturalekin batera, Habana Zaharreko komunitateetako espazio publikoetan eta agertoki berriean. Horrek guztiak auzoetan ehun soziokulturala dinamizatzen lagundu du, eta proiektu horietan egiten den lana eta komunitatean duten eragina ikusarazi eta sustatu da.

Habanako Historialariaren Bulegoak, ondarea zaintzearekin lotutako beste gai batzuen artean, hiri-erregulazioak eta plangintzarako eta lurralde-kudeaketarako tresna eta estrategiak dramatza aurrera **Habana Hiria Kontserbatzeko Lehenetsitako Eremuan, bertako hiri- eta kultura-ingurunea hobetzeko** helburuarekin. Hala, eraldaketa sozialerako komunikazioaren tresnak erabiliz, aipatutako hiri-erregulazio, tresna eta estrategia horiei buruzko **komunikazio-materia-lak eta -euskarriak** zabaltzeko lanarekin jarraitu da (tolesgarriak, eskuorri solteak, infografiak, kartelak eta abar).

Azkenik, Kubako Historialariaren eta Ondare Hirien Kontserbatzailearen Bulego Sarearen komunikazio-gaitasunak indartzera bideratutako proiektuaren estrategiaren parte gisa, **Sarearen komunikazio-estrategiaren** lanketa bukatu da. Sarea osatzen duten bulegoetako komunikazioko espezialista guztiak artean sozializatu da, eta bertan aurreikusitako zenbait ekintza abian jarri dira Kubako Ondare Hiri batuetan.



Habana Zaharreko proiektu soziokulturalen mapatzearen emaitzen aurkezpena, Garapenerako Gunean Kultura komunitarioa (HKEE).

## KUBA

### HABANAKO ERDIGUNE HISTORIKOKO EMAKUMEEN GIZARTERATZE EKONOMIKO ETA SOZIALA SUSTATUZ

Ekimen honen bidez, **lurraldeko emakumeek baliabide ekonomikoak eskura izatea eta haien gaitasunak indartzea bultzatzen da**, emakumeon ahalduntze ekonomikoa eta autonomia sustatzeko bide gisa, Habana Zaharreko tokiko garapeneko bi proiekturi lotutako ekintzailetzalanetan parte hartuz eta laneratuz (Erroeza haraindiko proiektua eta Arte Corte proiektua).

**Lurraldeko emakume ekintzaile batzuk buru dituzten tokiko garapeneko 5 proiektu berriria** aholkularitza eta laguntza ematen jarraitu du PDL 999+ erakundeko kudeaketa-taldeak 2023an. Emakume horiek proiektuaren prestakuntza-prozesuetan parte hartu dute. Proiektu horietan jarduerak garatu ahal izateko ekipamendua erosi da.

Halaber, Erroeza Haraindiko proiektuaren kudeaketa-taldeak ekintzailetzari eta kultura zein identitate afrokubatarra baloratzeari buruzko motibazio-hitzaldiak ematen jarraitu du. Lurraldeko emakume ekintzaileei eta negozioren bat aurrera eramateko interesa duten emakumeei zuzendutako hitzaldiak izan dira.

2023ko azaroan inauguratu da Edertasun Areto Inklusiboa. **Arte Corte proiektua** da areto horren buru, eta lurraldeko zenbait emakumeren laneratzea bermatu du (horietako 3 desgaitasun fisikoko egoeran daude). Beraz, proiektuaren bidez, desgaitasunen bat duten pertsonen gizarteratze sozial eta ekonomikoa areagotzea bermatzen da. Bestalde, gunea irisgarritasun fisikoa kontuan hartzen duten irizpideen arabera eraiki denez, desgaitasuna duten pertsonek ere zerbitzu espezializatuak balia ditzakete.

2023ko abenduan, emakumeak buru dituzten ekintzaileta-esperientziak eta tokiko garapeneko proiektuak sozializatzeko tailerra egin zen Habanan. Bertan, proiektuaren jardueretan parte hartu duten Habana Zaharreko ekintzaileek euren jardunbide egokiak, kudeaketa-ereduak eta ikasitako ikasgaiak azaldu zituzten, eta gaur egungo Kuban gizartearekiko arduratsua den ekintzailetan jarduteko emakumeek aurrean dituzten erronkei buruz hitz egin zuten. Kubako beste Ondare Hiri batzuetako Historialariaren eta Kontserbatzailearen Bulegoetako aditurek hartu zuen parte tainerrean, hala nola Matanzas eta Pinar del Río hirietakoek, ezagutza eta esperientziak hiri horietara eramatzen direla bermatzeko helburuarekin.

2023ko abenduan, gainera, jarraipena egiteko eta monitorizatzeko bisita egin zuen KCD GGKE-ko taldeak (zuzendariak eta proiektuaren lankidetza-teknikariak) Habanara, proiektuaren aurrapenak eta lortutako emaitzak bertatik bertara ezagutzeko. Zabaldu berri duten Edertasun Areto Inklusiboa bisitatu zuten, bai eta emakumeak buru dituzten Habana Zaharreko tokiko garapen-proiektuen gune batzuk ere. Ekimen horiei aholkularitzaren eta ekipamenduaren bidez



Emakumeek gidatutako tokiko garapeneko proiektuen eta ekintzailezen esperientziak sozializatzeko tailerra, La Habana, 2023ko abendua.

laguntzen zaie, lankidetza-proiektuaren esparruan. Gure erakundeko ordezkariak harremetan izan ziren emakume ekintzaile horietako askorekin. Gainera, KCDren eta Habana Hiriko Historialariaren Bulegoaren arteko etorkizuneko lankidetza-lerroak aztertu zituzten, lurraldeko emakumeen gizarteratze sozioekonomiko eta kulturala, ahalduntzea eta autonomia sustatzeko estrategian lanean jarraitze aldera.

Proiektua Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) finantzaketari esker gauzatzen ari da, zeinak 263.964 € bideratu baititu, guztira 284.108 €-ko aurrekontua duen proiektua.

## KUBA

### **ZAURGARRITASUN-EGOERAN DAUDEN HABANAKO ERDIGUNE HISTORIKOKO EMAKUMEEI LAGUNTZEA SUSTATUZ**

2023ko martxoan burutu zen proiektuaren bidez, **emakumeak artatzeko laborategi psikodidaktiko** bat sortu zen **Casa de la Obra Pía museoan**, Habana Hiriko Historialariaren Bulegoko Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren barruan. Habana Zaharreko lurraldean egoera kalteberan dauden emakumeen parte-hartzea, trukea, sozializazioa eta indartzea ahalbidetu du espazio horrek. Museoko eta Habanako Historialariaren Bulegoko profesionalen taldeak, laborategiaren kudeaketa-talde gisa, lagunza eta prestakuntza eskaini dizkie, eta haien garapen pertsonala eta kulturala sustatu ditu, Casa de la Obra Pía zentroari lotutako historiarekin eta ondarearekin duen loturatik abiatuta.

Horretarako, laborategi psikodidaktikoko talde kudeatzailea trebatzeko prozesu bat egin da, kalteberatasun-egoeran dauden emakumeekin lan egiteko eta arreta eskaintzeko tresna teoriko-metodologikoak emateko. Horri esker, langile horiek gunera sartzen diren emakumeenzako programa soziokultural egokia diseinatu eta implementatu ahal izan dute, haien berezitasunak eta behar espezifikoak kontuan hartuta.

Ondoren, emakumeen beharretara egokitutako programa jarri zen martxan, erakundeko adituek aldez aurretik egindako diagnostikoan antzemendako beharrizanak kontuan hartuta. Programaren esparruan askotariko jarduerak egin dira: eskulan-tailerrak, aholkularitza-guneak, hitzaldi hezigarriak, zinema-saioak eta emakumeek egindako ikus-entzunezko lanen inguruko eztabaidea-saioak, zaurgarritasun-egoeran dauden emakumeei eragiten dieten gaiak eta arazoa aztertzeko, eta, aldi berean, emakume zinemagileen sorkuntza-lanak zabaltzeko.

Laborategiko programa soziokulturaleko ekintza horiei guziei esker, **emakume horien pres-takuntza bultzatu da**, kultura eta ondare-tradizioak berreskuratu eta babestea abiapuntu harturik, eta haien autonomiarako, independentziarako eta ahalduntzerako tresnak eman zaizkie.

Proiektua Bilboko Udalaren finantzaketari esker gauzatu da, 70.000 euroko aurrekontuarekin.



Habana Zaharreko Emakumeari Laguntzeko Laborategi Psikodidaktikoan parte hartzen duten egoera ahulean dauden emakumeen proiektuaren emaitzen aurkezpena.

## KUBA

### **HABANA ZAHARREKO HIRIGUNE HISTORIKOKO EMAKUMEEN GIZARTERATZE EKONOMIKO ETA SOZIALA SUSTATUZ, KULTURA-ONDAREAREN KUDEAKETAREN ETA ARRETA PSIKOSOZIALAREN BIDEZ ETA GENERO-IKUSPEGIAREKIN**

Emakumeen gizarteratze sozial, kultural eta ekonomikoan laguntzea da proiektu horren helburua, kultura-ondarearekiko lotura eta haien potentzialitateen garapena abiapuntutzat hartuta eta eskubideen eta genero-ekitarearen ikuspegia baliatuta. Proiektuaren barruan, **Hirigune Historikoko kultura-ondarearen kudeaketan genero-ikuspegia txertatzeko eskuliburua** lan du da 2023an. Habanako Historialariaren Bulegoko Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren genero-estrategia 2022aren bukaeran landu eta baliozkozen, eta horren ildotik egin da aipatutako eskuliburua.

**Genero-ekitarea eta emakumeak ahalduntza sustatzeko tresna metodologikoei** buruzko prestakuntza-prozesuaren barruan, eta proiektuan aurreikusita zegoenez, Habanako Historialariaren Bulegoko ondare-kudeaketako 4 aditu Euskal Herrira etorri ziren, kulturaren, ondareaaren eta abarren kudeaketan genero-ikuspegia txertatzeko esperientziak eta jardunbide egokiak ezagutzeko.

2023an ere, **emakume artista eta intelektualek** —batez ere kubatarrek— zeramika-sorkuntzan, arkitekturan, hirigintzan eta barne-diseinuan **egiten duten lana eta ekarpena ikusarazteko eta zabaltzeko** ekintzak egin dira, besteak beste, hitzaldi-zikloak eta erakusketak. Ekintza horietan guztietan, eskubideen ikuspegia artearen eta kulturaren bidez lantzen saiatu gara, emakumeak esparru horietan parte har dezan sustatzu.

Aurreko proiektuarekin lortutako helburuak osatze aldera, **zaurgarritasun-egoeran dauden lurradeko emakumeentzako arreta psikosozialeko gunea** babestu da. Gune horrek Casa de la Obra Pía museoa du egoitza, eta museoa Habanako Historialariaren Bulegoko Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren esku dago. 2023aren erdialdean emakumeentzako zerbitzu soziokulturalak, prestakuntzakoak eta laguntza psikologikokoak babestu ziren. Hala, emakumeen garapen emozionala eta ahalduntza sustatzen duten jarduerak egin ziren; besteak beste, eskulan-tailerrak, horietan landutako produktuen erakusketak eta azokak, hitzaldi-saioak eta gai interesgarrien inguruko zinema- eta eztabaidea-saioak.

Ekimen hori Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziaren finantzaketarekin garatu da, zeinak 600.000,00 € bideratu baititu, orotara 849.379,17 €-ko aurrekontua duen proiektu horretara.



Emakumeek Habanako Zentro Historikoaren ondare materiagabeari egindako ekarpenari buruzko ikerketa-emaitzaren aurkezpen ofiziala.

## KUBA

### **HEGOALDEKO ONDARE-HIRIEN HIRI- ETA KULTURA-INGURUNEA HOBETZEN LAGUNDUZ, HABANA ETA SAINT LOUIS (SENEGAL) ARTEKO EKIPAMENDUTIK ETA ESPERIENTZIA-TRUKETIK ABIATUTA**

2023ko martxoan burutu zen ekimena lagungarria izan da Habana Zaharreko hiri- eta kultura-tingurunea hobetzeko eta Senegalgo Saint-Louis hiriaren ondare-garapena bultzatzeko. Horretarako, indartu egin da 2020an abiarazitako prozesua, Hegoalde Globaleko herrialdeen (Habana/Saint Louis) eta Bilboren artean ondarearekin lotutako jakintzak, esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzea helburu zuena.

2023ko lehenengo hiruhilekoan, Bilboko, Habanako eta Saint Louiseko taldeek elkarlanean landu dute 2022ko azaroan Habanan izandako truke-misioan zehaztutako ekintza-lerroak izan daitezkeenak jaso dituen dokumentua. Hortik abiatuta, hiru herrialdeen arteko hiruko lankide-tza-estrategia sendotzen jarraitzeko eman beharreko pausoak finkatu zituzten, eta etorkizuneko proiekturetan garatu beharreko ekintza puntualak ere zehaztu zituzten.

Bilboko Udalak 70.000,00 €-ko finantzaketa bideratu du proiektu horretara.

## SENEGAL

### **EMAKUMEEN EKINTZAILETZA ETA ONGIZATEA SUSTATZEA EKOLOGIKOKI JASANGARRIAK DIREN PROIEKTUEN BIDEZ, ETA TOKIKO KULTURARI BALIOA EMATEA GANDIOLEN**

2021eko abendutik 2023ko otsailera, proiektuak emakumeen ahalduntzea sustatu du inguru-menaren aldetik jasangarriak diren jardueren bidez. Era berean, emakumeon osasunaren eta ongizatearen alde egin du, eta balioa eman die tokiko komunitatearen aurrean, haien nortasun kulturala abiapuntu harturik.

2023ko otsailean arrakastaz burutu da urtebete baino gehiagoz egin den ezarpena, eta proiektuaren jasangarritasunaren oinarriak finkatu dira.

NITÉ finkatu da, proiektuak bultzatu duen ehungintzako ekintzailetza-proiektua. Emakumeek interes eta motibazio handia erakutsi dituzte teknika berriak ikasteko, eta konpromiso nabarmena euren lana profesionalizazeari dagokionez. Egin dituzten ehungintzako produktuek ikus-



Gandoleko Nité emakumeen ekintzailetza, jantzigintza-tailerra.

min handia piztu dute Gandioleko biztanleen artean, eta horiek erosteko eskaera ugari jaso dira; gainera, proiektua hurbileti ezagutzeko interesa erakutsi dute askok.

Joskintzako eta tindaketa-lanetako beste ekimen eta profesional batzuekiko loturak sortu eta indartu dira. Horrek aukera eman du tindaketa-teknikak hobetzen jarraitzeo eta jasangarritasunaren, material naturalen eta birziklatzearen inguruan lan egiteko.

Komunitateak, orokorrean, interesgarritzat jo du ekimena, eta agintariek ere begi onez ikusi dute ekintza guztien garapena. Lotura garrantzitsua sortu da Gandioleko neska gaztekin, eta erreferentiazkoak izatera iritsi dira, zalantzak edo zaitasunak sortu direnean prestakuntza eta laguntza eskaini baitute.

Egindako lanari esker, beste ekimen eta emakume-talde batzuk identifikatzeko prozesua oso eraginkorra izan da. Gandioleko Emakumeen Etxearen eta emakumeak buru dituzten udalerriko beste ekimen batzuen artean sortu diren loturen ildotik emaitza oso positiboak lortu dira. Gainera, Gandioleko herri guzietako emakume-taldeei buruzko informazio asko dago.

Horrez gain, proiektuan elikadura- eta higiene-gaien eta zaintza pertsonaleko produktuen ekin-tzaileta indartu da, hainbat emakumek gidatuta, guzia ere autokudeaketa hobetzeko ekipamendu eta tresnekin. Herritarrok sentsibilizatu dituzte, orobat, emakumeek ez ditzaten erabili azala zuritzeko baliatu ohi dituzten krema zuritzaire kaltegarriak.

Proiektu horrek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza du, zeinak 100.000 € bideratu baititu — hau da, proiektuaren finantzaketa osoa—.

## SENEGAL

### **GANDIOLEKO EMAKUMEEN OSASUNA, GU GUZTION ONDASUNA. III. FASEA**

2022ko abenduan hasi eta 2024ko martxoaren 14an bukatzekoa den proiektuak jarraipena eman die Gipuzkoako Foru Aldundiak lehenago ere finantzatu zituen Gandioleko Tabax Nité garapen-poloa sendotzeko ekimenei.

**Gandioleko emakumeen ugalketa- eta sexu-osasuna, laneko osasuna eta osasun integrala hobetzea** da helburua, eta, horretarako, udalerriko osasun-sistema sendotzea eta jardunbide egokiak eta norbere zaintza sustatzea.

2023an, proiektuaren helburuari eusteko ekintzak finkatu dira. Tabax Nité guneko Emakumeen Etxea erreferentiazkoa da komunitatean, eta emakumeen eta gazteen osasuna eta ongizatea sustatzeko konpromisoa du. Bertan eskaintzen dituzten zerbitzuek honako hauek hartzen dituzte barne:

- Haudunaldien jarraipena egiteko eta egoera horretan dauden emakumeei laguntzeko konsultak; emakumezko ikasle gazteen bisitak sexu- eta ugaltze-osasunari buruzko gaiei buruz hitz egiteko.
- Aholkularitza juridikoa genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat.
- Jarraipen ginekologikoa eta mediku-arreta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat.

Lankidetzan aritu gara Gandioleko udalarekin eta beste egitura batzuekin (osasun-postuarekin, osasun-barrutiarekin, diabetikoen elkartearrekin eta abarrekin), Tabax Nité gunera gaiaren inguruko prestakuntza-tailerrak ekartzeko helburuz. Hori guzia Gandioleko garapen komunitarioko poloa osatzen duten talde eta azpiegiturekin batera antolatu da: **Osasun-zentroa, Aminata Kulturna Zentroa, Komunikazio Komunitarioko Zentroa** —eta bertako komunikatzaile komunitarioen sarea—, eta **Gandioleko Emakumeen Etxea**.

Proiektu horrek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza du, zeinak 100.000 € bideratu baititu — hau da, proiektuaren finantzaketa osoa—.

## SENEGAL



### **KOMUNIKAZIO KOMUNITARIOA, GANDIOLEN GARAPEN ENDOGENO, BERDINTASUNEZKO ETA JASANGARRIAREKIN KONPROMETITUTAKO HERRITARRAK SORTZEKO. II. FASEA**

Proiektua 2021eko abenduan jarri zen martxan eta 2023ko azaroan bukatu da. Azken urtean, 2022ko aurrerapenak finkatu dira, hiru ekintza-lerroei dagokienez.

Gandioleko, bukatu dira Komunikazio Komunitarioan Trebatzeko Zentroa zabaltzeko eta hobetzeko lanak, eta 2023an prestakuntza-saioak eta eztabaidarako eta hartu-emanetarako topaketak egin dira bertan. Komunikazio-estrategia egiteko eta ondorengo sentsibilizazio-kanpaina koordinatzeko elkargune bihurtu da. Kanpainaren ikuspegia dekoloniala eta feminista da, egungo egoeran eraldatzaileak diren ikuspuntuak hartzen ditu kontuan.

Komunikazio-estrategiari esker, ikus-entzunezko baliabideen bidez ekintzak planifikatu ziren. Gêm Sunu Bopp FM irratiko komunitarioak programazioa egin eta zabaltzen jarraitu du 2023an ere. Gainera, saioak Internet, Facebook eta YouTuberen bidez ere plazaratu dira.



Gandioleko Gêm Sunu Bopp FM irratiko komunitarioaren estudioa.

2023ko otsailean, JournAfrique kazetaritzari eta komunikazioari buruzko nazioarteko topaketa-ren 3. edizioa antolatu zen. Saint Louiseko Zinema Dokumentalaren Jaialdiarekin lankidetzan aritu gara, eta Gandioleko gazteek egindako 3 film labur eta gizarte-gaiei buruzko filmak eskaini dira, tokiko arazoekin bat zetozenak.

Nekazaritza Ekologikoko Berrikuntzarako Gune Esperimentalari dagokionez, proiektua indar-tzen eta lantzen jarraitu dugu. Azkenean, gune integrala bihurtu da eta baratzea, piszifakto-

ria eta abreak ditu. Komunikazio Komunitarioan Trebatzeko Zentroan prestatutako emakume ekintzaileen talde bat arduratzen da kudeaketaz.

Proiektu horrek GLEAren laguntza du, zeinak 433.181,60 € bideratu baititu orotara 541.777 €-ko den aurrekontura.



Saint Louiseko zinema dokumentalaren jaialdiaren irudia

## SENEGAL

### **SAINT LOISEKO ONDAREA SUSTATZEA, KOMUNITATEAREN PARTAIDETZAREKIN, GENERO-EKITATEAREKIN ETA HEGOALDE-HEGOALDE MAILAKO ESPERIENTZIAK TRUKATUZ**

Bilboko Udalak 2023ko deialdian onartu zuen proiektua. Hiru urteko iraupena du eta 2023ko abenduan ekin zitzaion.

Helburua Saint Louiseko ondarea sustatzea da, komunitatearen parte-hartze inklusiboarekin eta esperientziak trukatuz Habanarekin eta Bilborekin. Horretarako, ondarea babestu eta kudeatuko duen kultura-eragile gazteen sarea aktibatu eta dinamizatuko da, Saint Louis hiriaren gizarte-eraldaketa bultzatze aldera. Kubako, Senegalgo eta Euskadiko ordezkarien artean esperientziak, ezagutzak eta estrategiak trukatuko dituzte, ondareari balioa eman eta kudeatzeko, betiere gizarte- eta genero-ikuspuntu kontuan hartuta.

Modu horretan, ondarearen inguruko diskurso berriak sortu nahi dira, inklusiboagoak eta kritikoagoak, Saint Louisen eta Habanan artea eta komunikazio-teknologia berriak erabiliz.

Proiektuak Bilboko Udalaren babes du, zeinak 210.000 €-ko ekarpena egin baitu.

## SENEGAL

### **KOMUNIKAZIOAREN ETA KULTURAREN BIDEZ EMAKUMEAREN OSASUNA ETA GENERO-BERDINTASUNA SUSTATZEA GANDIOLEN (SAINT LOUIS, SENEGAL)**

Gipuzkoako Foru Aldundiak Tabax Nité garapen-poloa babesten jarraitu du, Saint Louiseko Gandiol komunitatean. 2023an onartu zen urtebeteko proiektua, eta urte horretako abenduan jarri zen martxan.

Aurreikusita dagoenez, Gandioleko emakumeen enplegua sustatzeko ekintzak bideratuko dira proiektuaren bidez. Hala, komunitateak emakumeak balora ditzan lortu nahi da, Aminata Kultura Zentroan haien nortasun kulturala, osasuna eta ongizatea sustatz, beste erakunde sozial batzuekin batera. Horretarako, jarduera hauek planteatzen dira:

- Emakume gazteen artean eraikuntza jasangarriaren lanbidea sustatzea, lan egiteko aukera izan dezaten eta genero-rolak zalantzan jartzeko. Aminata Kultura Zentroko azpiegitura batzuk konpontzeaz arduratuko dira.
- Gipuzkoan eta Euskadin, gizarte-eraldaketarako eta afrikar zinema erakusteko kultura-programazio jarraituari, askotarikoari, berdinzaileari, parte-hartzaileari eta jasangarriari eustea.
- Ingurumen- eta osasun-jardunbide egokiak sustatzea Gandioleko emakumeen artean, kultur ekitaldien eta komunikabideen bidez, komunitatearen partaidetzarekin. Haurren parlametua bideratuko da, belaunaldi gazteak implikatze aldera.

Proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesia du, zeinak 100.000 €-ko ekarpena egin baitu.

## EGIPTO, LIBANO ETA EUSKAL HERRIA



### **GIZARTEA ERALDATZEKO KOMUNIKAZIOAREN BIDEZ, GENERO-BERDINTASUNA, BIZITZAREN JASANGARRITASUNA, GIZA ESKUBIDEAK ETA KULTURARTEKOTASUNA SUSTATZEAREN ALDEKO EMAKUME ZINEMAGILEEN SAREA. EGIPTOTIK MUNDURA**

KCD GGKEk konpromisoa hartu du gizarte-komunikazioko prozesuak batzeko, garapena bultzatzeko bide gisa. Konpromiso hori oinarri harturik, lagunza eskaintzen die emakume zinemagileei eta haien lagunza-sareak indartzeko prozesuei 2013tik, Egiptoko Klaketa Arabe ekoizpen-etxe sozialarekin batera. Gizartea eraldatzeko komunikazio-tresnak baliatzen dituen zinemaren bidez, gizarte bidezko, jasangarri eta errespetutsuagoak sortu nahi dira, giza eskubideak eta kulturartekotasuna gehiago errespetatzen dituztenak.

Urte hauetan zehar, **proiektua sendotzen joan da, eta gero eta gehiago txertatu dira bai generoa eta bai gizartea eraldatzeko komunikazio-tresnak**; hala, inpaktu handiagoko proposamenak egitea lortu da.

Proiektuak 2024ko urtarrilean burutu da, eta funtsezko hiru estrategia izan ditu ardatz: eskaintza zinematografiko bat sortzea emakumeen ikuspegia oinarri harturik, emakume zinemagileen gaitasunak indartzea, eta haien arteko ahizpatasun-loturak indartzea eta sareak sortzea.

Horretarako, 2023an ekintza hauek egin dira:

- Munduko hainbat eskualdetako emakumeen ikus-entzunezko ekoizpena bultzatu da, eta haien zinema-lana emakumeen eta gizonen eskura jarri da *Carte Blanche* online proiekzioen hileko egitarauaren bidez.
- Gizarte-eraldaketarako komunikazioaren ildoko ikus-entzunezkoak ekoizteko gaitasunak indartu dira askotariko emakumeen artean, generoaren eta kulturartekotasunaren ikuspegitik abiatuta, eta zaintza-sareen sorrera sustatu da, nazioarteko zinema-zirkuituetan sartzeko.

«Sormen-dokumentala» tайлerraren 5. edizioaren bidez egin da hori, Kairon. Ikus-entzunezko komunikazioko tresnetatik abiatuta emakumeen adierazpena erraztea izan da asmoa.

- Komunikatzileen arteko hartu-emana eta kulturartekotasunaren aldeko lana sustatzeko prozesua indartu da.
- Bilbon, emakumeek egindako zinemaren 12. Karabana gauzatu da. Bertan, 6 film erakutsi dira. Ekitaldiak 5 eguneko iraupena izan du, eta partaideen artean egon dira Amal Ramsis proiektuaren koordinatzailea, Frantziako eta Dominikar Errepublikako zinema-zuzendari bana —Bilbora etorri dira ekitaldian aurrez aurre parte hartzeko—, eta Zoom bidez euren filmen aurkezpenean eta osteko foroetan parte hartu duten zuzendari bat eta ekoizle bat. Horiekin batera, Euskal Herriko bi kazetari feministak aritu dira moderatzaile-lanetan eztabaida-saioetan.
- Arabiar eskualdeko herrialdeei zuzendutako «Zinemagileen artean» emakumeek egindako zinemaren 15. Karabana egin da (online modalitatearen 4. edizioa). 12 eztabaidea-saio eta maisu-eskolak izan dira, hausnarketa egiten eta kontzeptuak barneratzen laguntzeko.
- Habanako (Kuba) emakume zinemagileen topaketa egin da, aliantzak eta laguntza-sareak han eta hemen indartzeko.
- Habanan aurrera eraman da «Zinemagileen artean» emakumeek egindako zinemaren 2. Karabana. Kuban ez ezik, Afrikako herrialdeetan, Ekialde Hurbilean eta beste leku batzuetan ere sektoreko emakumeek aurrean dituzten erronkak aztertzeko eztabaidea- eta partekatze-saioak egin dira.

